2018ko urtarrila 178. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

IOSU IRIBAR OLATU ERRALDOIEN GAINEAN ABIAN, AMESTUTAKO OHOLAK

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
☎ 14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943 140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

EDITORIALA ETA AURKIBIDEA

22-24 Iosu Iribar Debako olatu erraldoien txapelketan

26 Argazki erreportajea: San Antonak

4	Elan Euskadi
5	Eskubide Sozialen Karta
6	Artzapetik begira: Xabier Insausti
7	Historiaren katebegiak
8	Harritarten txutxupeka
9	Urritza Aisialdi Taldea
10	Inglix pitinglix
11	Getariako hitza eta Txikiegia agian
12-13	Iritzia: Saioa Martinez de Lahidalga
14	Toponimia
16-17	Publierreportajea: hondakin bilketa
18-21	Erreportajea: Abian
22-24	Erreportajea: Oier Iribar olatu handietan
26	Argazki erreportajea: San Antonak
27	Agenda

2018ko urtarrila 178. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Ioseba Fuentes, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

elan euskadi
ONGD - GGKE

Nor da Gini edo zer da Gini?

Noizbehinka entzuten da Gini adierazlea hedabideetan, ezustean topatutako perretxikoa bailitzan. Izenak berak iradokitzen duen bezala, italiar batek asmatutako adierazlea da: Corrado Gini estatistikariak.

Baina, zertarako balio du? Ipuin xarmangarri bat zapuzteko. Honela hasten da: "Bazen behin herritxo polit bat, non bi herritar bizi ziren, eta egunero bi oilasko jaten zituzten, oilasko bana, alegia". Orduan, Corradok, estatistikaria izaki, eskua tximista bailitzan altxatuko luke eta zera esan: "Ba nire Gini adierazleak 0,8 emango luke!!!". Eta zer? "Batak, ia bi oilaskoak jaten dituela eta besteak, hegal erdi bat. Kontuan izanik, nire adierazlea 0 —bakoitzak bana janez— eta 1 —batek bi oilaskoak janez— bitartekoa dela, garbi dago bi herritar horietako batek kristoren boterea eta aurpegia dituela".

Akabo ipuin xarmangarria, Corrado!!!

2012ko abuztuan, Unicef ere Corrado Ginirekin gogoratu zen, eta txosten bat kaleratu zuen 141 estaturen sarreren banaketa aztertuz; eta Giniren adierazlea erdi-erdian, ipuin txolinak zapuzten —txostena oso luzea da; Interneten erraz aurki daiteke: *Desigualdad global: La distribución del ingreso en 141 paises- UNICEF-agosto 2012*—. Egoeraren gordintasuna pare bat esalditan islatzea zaila da, baina, to:

- Populazioaren %20 aberatsenak sarreren %83 du eta %20 pobretuenak %1, merkatu truke-tasen arabera.
- Oraingo martxan, 1.000.000.000 pobretuenek 855 urte beharko lituzkete sarreren %10era iristeko.

Corrado Giniren adierazleak zer dio? Hona adibide batzuk:

- Suediakoa: 0,20 (1990); 0,23 (2007ko abuztua).
- Espainiakoa: 0,30 (1990); 0,31(2007ko abuztua).
- Brasil: 0,53 (1990); 0,48 (2007ko abuztua).
- Kenia: 0,50 (1990); 0,48 (2007ko abuztua).
- Hego Korea: 0,32 (1990); 0,29 (2007ko abuztua).

Gini adierazlea ehuneko bat (0,01) igotzeak adierazten du pobretuenen sarreren %3,5 gehiago joan dela aberatsenen poltsikoetara (jaisteak, alderantziz).

Baina baita honako ere: zenbat eta Gini adierazlea handiagoa orduan eta injustizia handiagoa, hazkunde gutxiago eta egonkortasun politiko gutxiago.

Unicefek dio, egoera hobetzeko langabezia murriztu, janari eta erregaien prezioak merketu eta gastu publikoa handitu behar direla.

Datuak oso zaharrak dira, baina Corradoren adierazleak frogatzen du nahi izan denean eman izan direla urratsak banaketa justuago baterantz —Brasil, Kenia, Hego Korea...—. Eta hemen zergatik ez?

Gora GINI, eta 855 urtera arte.

Errausketarik ez, birziklatzea bai!

Urola Kostako Udal Elkarteak sustatu duen hondakinak biltzeko sistema berria otsailean sartuko zaigu indarrean. *Modernizatu* hitza erabili dute, baita sailkatze tasa "hiru urtetan %75era" pasatzea edota "birziklatze tasa handitzea guztion betebeharra" dela adierazi ere.

Baina, gure ustez, EAJ, PSE eta PPk hondakinen kudeaketarako duten planak gutxi du modernotik, eta urrun geratzen da bete behar eta sailkatze tasa altuak lortu nahi izatetik, birziklatzearen aurkakoa den jarrera eta proiektuak bultzatzen ari baitira:

- Inork bere etxe ondoan nahi ez duen errauskailua altxatuko dute Donostiako Iurretan, baina Donostiako erdigunetik aldenduta; badaezpada.

- Europak "iraungitze-data" jarri nahi dien eraikuntza altxatzen ari dira Zubietako Iurretan. Iparraldetik erraustegietan birziklagarriak diren erraustea —baita zabortegietara botatzea ere— ekidin nahian ari diren bitartean, gurean miloika euro publiko gastatzea erabaki dute. Ikaragarria aurrerapena ulertzeko modu hau.

- Gainera, errauskailua eraiki eta kudeatuko duten enpresek beti izango dituzte irabaziak; hau da, enpresek inbertituko dituzten 254,4 milioien truke Aldundiak hirukoiztuta itzul diezaiekete dirua; noski, guztion dirutik tirata. Hau da hau pagotxa!

- Osasunaren kontua ere hor dago; hainbat mediku, osasungintzako langile eta ikerketek frogatutzat ematen dute errausketak ondorio kaltegarriak dituela giza osasunean. Hondakinen erretzea, errauskailu batetik hamar kilometro inguruan bizi den populazioan, minbizi kasuen eta hilkortasunaren handitzearekin lotzen da, baita sortzetiko malformazioekin eta eritasun kardiobaskular zein arnasbidekoekin. Horra errauskailua bere etxe ondoan inork eraikitzea nahi ez izatearen arrazoi nagusietako bat.

- Industria hau, gainera, birziklatzearen aurkakoa da, materia organikoa erretzeko behar-beharrezkoa baitu birziklagarri diren papera, kartoia, plastikoa... Horratx, bai edo bai ongi banatzera behartzen gaituen bilketa sistema —atez-atekoa— hainbeste sakralizatu izana.

- Bukatzeko, Piotr Barczak Europar Batasuneko Ingurumen Batzordeko arduradunak esandakoa gogorarazten dugu: "Errausketa teknologiak, onurak baino, kalteak ekartzen ditu ekonomian eta ingurumenean".

Beraz, burua erabiltzen dugunez guk, eta ziur getariarron gehiengoak ere baietz, argi dugu herrian errauskailurik eraikitzea ez genukeela onartuko; eta bihotza ere badugunez, guretzat nahi ez duguna ez diogu beste inori opa. Ondorioz, Zubietan egin nahi duten astakeria hau bertan behera geratzearen aldarria egiten diegu EAJ, PSE eta PPri.

Bide batez, baita honakoa ere:

- Mugarik gabeko ekoizpen eta kontsumoaren aurrean hiri hondakinen murrizketa bultzatzea.

- Hondakinak erretzearen aitzinean %90eko birziklapen mailak eskuratzea.

- Erdipurdiko bilketa sistemak alboratu eta gaika biltzeko sistema eraginkorrena martxan jartzea.

- Diru publikoa esku pribatu gutxi batzuetara bideratzearen aurrean lanpostuak sortu eta guztion dirua ongi gestionatzearen aldeko apustua egitea.

XABIER INSAUSTI

Vargas joan da

Vargasen gerizpean bizi garenok asko ikasi dugu; bere —gure— barruan gauza batzuk mugitu egin dira. Vargasek eraman gaitu errealitatera. Vargasen patua gurea da. Euskal Herriaren —eta Europaren, gehitu nahiko nuke— historiaren metafora da.

Iragana eta etorkizunaren hari fina literarioki, eta harago, berreraikitzen du Uxue Alberdiren liburuak. Literatura eta errealitatea ko(n)funditzen dira *Janisjoplin*en pertsonaian. Azkenean, literaturaren bidez ulertu ahal dugu gure burua.

Bera "arimaren historialaria" dela esaten du Aleksievtxek *Gerrak ez du emakume aurpegirik* liburuan. "Gertaeraren erraiak" kontatzen ditu idazle bielorrusiarrak: "Sentimenduak dira errealitatea". Azken batean, benetako gertaerak sentimenduak dira bere esanetan, benetako gerrak sentimenduarenak dira. Hegelekin sentimenduak eta mundua gauza bereko bi zatiak dira.

Sentimenduak dira Eider Rodriguezek ere *Bihotz handiegia* liburuan kontatzen dituenak. Pertsonaiak sentimenduetan harrapatuta bizi dira eta horien korapiloaren irtenbidea aurkitu behar dute.

Kixotenean liburuak fikzio eta errealitatearen arteko ezberdintzearen ezintasuna edo dialektika azaltzen du. On Kixotek euskal kulturan izan duen presentzia aztertzen da liburu xume honetan.

Hiru liburu hauekin ibiliko gara Getariako literatura tailerrean hurrengo hilabeteetan. Ikasten ari gara, poliki-poliki, literaturaren bidez bizitza beste dimentsio batera eramaten. Horregatik da hain txarra *Patria*, liburu hain ideologikoa: munduan uzten gaituelako, defentsarik gabe, gerratik harago ez duelako ezagutzen beste horizonterik; azken batean, ez dakizkiolako munduari azalerazten gertaeraren erraiak.

Vargasek mundu honetan bizi nahi zuen eta munduak ukatu dio aukera. Betiereko metafora da Vargasena: bere urtea ez da bukatu orain, hasi baizik. Bizitzaren ezintasunarekin hasten da benetako bizitza.

Urtearen hasierarekin joan da Vargas, horregatik orain hasten da bere urtea.

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

ALDAMAR JAUREGIKO ERREGEAK (II)

Urtarrileko berrian aurkeztu genuen Blanquitak —Aldamar Jauregiko 6 urteko txikiak— Errege Magoei eginiko oparien zerrenda. Bertan antzeman zitekeen moduan eta aipatu genuen bezala, ez zen inondik inora jatorri apala zeukan neskatila. Zerrendako eskaerak aztertuz gero, pare bat kontu aipatu beharrean aurkitzen gara.

Alde batetik, neskatilak zeukan aurpegia aipatu behar da, beretzako opariak eskatzearekin nahikoa ez eta bere aita, ama, anaia, amona eta lagunentzako ere eskatzen baitzituen, eta ez edonolako opariak gainera.

Bestalde, ume behartsuentzako egiten duen jostailu eskaera azpimarragarria da, garai hartako moralitate kristauaren karitatearen erakusgarri. Azken kontu honi dagokionez, hor geratuko zaigu zalantza: ea eskari horiekin eskubazal eta pertsona on modura kalifika zitekeen Blanquita edo Errege Magoei itxura ona emateko estrategia hutsa besterik ez zen berea.

Argi dagoena da, egindako zerrendarekin bere gurasoak ados zeudela —gutunaren amaieran firmatu baitzuten—; jakingo ez duguna da ea Errege Magoek eskaeriei benetan kasu egin zieten.

Honekin guztiarekin zenbait galdera datozkigu burura: zein familiatakoa zen? Garrantzitsua edo ospe handikoa al zen familia hau? Zergatik Aldamar Jauregian?

Blanca de Aragón y Carrillo de Albornoz Getarian jaio zen 1892ko uztailaren 30ean eta Madrilen hil 1981eko azaroaren 16an. Blanca Carrillo de Albornoz y Elio, Torres Etxeko VI. markesa eta Baiguerreko XVII. bizkondesa, eta Cesareo de Aragón y Barroeta-Aldamarren alaba zen. Torres Etxeko markesgoaren —1709. urtean Espainiako Felipe V.ak sortutako noble titulua— bizilekua izan zen Aldamar Jauregia, Blancaren amaren familiarena, alegia.

Inongo beldurrik gabe esan genezake munduko goi-mailako joskintzaren bilakaerarako oso garrantzitsua izan zela aztergai daukagun familia jauregi horretan bizi izana; esan daiteke bertan bizi ez balira, Cristobal Balenciagaren agerpenik ez litzatekeela egongo. Diotenaren arabera, Micaela Elio y Magallón, Blanca txikiaren amona, izan zen Balenciagaren lehen mezenasa eta Blanca, ama, bigarrena. 12 urterekin egin zuen Balenciagak bere lehen jantzia, eta hau Torres Etxeko markesak eskatua izan zen. Hortik aurrerakoa ezaguna da guztiontzat.

Zientzia eta teknologia konpetentziak

Aurreko ikasturteetan hasitako ildoari jarraituz, zientziarako eta teknologiarako konpetentziak eskuratzeko bidean jarri dugu arreta ikasturte honetan. Ikasleek etorkizunean, bai arlo akademikoan bai arlo laboralean, beharrezkoa izango dute konpetentzia horietan trebatzea eta horretarako eskaintzen dugun prestakuntza eta ikaskuntza garatzeko prozesuak hobetu nahi ditugu.

Gure ikasleei dagokien mundu eta bizimodurako hezkuntza eskaini nahi diegu. Eskubidea dute beraien hezkuntzaren eta etorkizunaren oinarrizko osagaia dena —eta izango dena— jasotzeko. Horregatik, ikastetxe bezala prestatu, planifikatu eta gure hezkuntza proiektuan barneratu nahi izan ditugu robotika eta teknologia. Hori dela eta, mundu horretan murgiltzen hasi gara, Hezkuntza Sailaren eskaintza aprobetxatuz.

2017-2018ko deialdian bi ekintza aurkeztu genituen:

- Zientzia Hezkuntza Programa
- Robotikako Hezkuntza Jarduera

2017-2018 ikasturtean, Iturzaeta Ikastetxeko Lehen Hezkuntzak Zientzia Hezkuntza Programan parte hartu du estreinakoz. Ekimen honen helburuetakoa da irakasleei zientzia irakasteko eta oinarrizko konpetentziak garatzeko baliabide didaktikoak eta estrategiak eskaintzea, jarduera praktikoak burutuz. Gainera, *curriculum*ean edukiak era aktibo eta integratuan lantzeko proposamen zehatzak egiten dira, beti ere, gomendatutako laborategia eta IKT baliabideak erabiliz. Azkenik, zientziaren izaerari eta eskatzen dituen komunikazio aukerei buruzko hausnarketara bultzatzen du, ariketa praktikoak medio.

Programa horri esker, ikasleek zientziarako konpetentziak garatzen jarraitu ahal izango dute eta izaera zientifikoaren esperimentazioan sakondu, hainbat eduki jorratzen dituzten bitartean: flora, harriak eta mineralak, lurzoruko osagaiak, uraren zikloa, giza gorputza, materia eta energia, nahasketa baten osagaien bereizte-prozesuak, materialen ezaugarriak, aldaketa kimikoak... Praktika horiek gauzatzeko eskura izango dituzte laborategiko baliabideak: mikroskopio digitalak, mikroskopiorako materiala (portak, Petri-plakak, metileno-urdina...), APQUA 10-12 moduluak, fonendoskopioak, balantza digitalak eta termometro digitalak, besteak beste.

Zientziako probak egiteko materiala.

Bestalde, Robotikako Hezkuntza Jarduera tailerren bidez ari gara gauzatzen. Helburua ikasleek programazioaren inguruan lehen urratsak ematea da. Lehen mailetan Studio Core programarekin ari dira lanean eta Bee Bot robota programatzen; beste mailetan, Scratch softwarea —puzzle baten antzera eraikitzen den programazio grafikoa— ezagutu eta erabiltzea da helburua.

Programaren oinarriak ezagutu ondoren, hurrengo urratsa ordenagailuan egindako programak, sentsore eta eragingailuak erabiltzea izango da, horrela robotika eta kontrola ulertzen hasiko baitira ikasleak. Horretarako Lego We Do 2.0 eta Scratch konbinatuz, hainbat proiektu gauzatuko dituzte. Hori aurrera eraman ahal izateko, prestakuntza jasotzen ari dira irakasleak, kasuan kasuko materiala erabiltzen ikasiz.

Ongi etorri 2018

Zein urte polita izan den 2017a, eta zeinen ederra izango den 2018a. Urte berriarekin batera, indarrak hartu eta buru-belarri ari gara dagoeneko ekintzak prestatzen. Urtarrilaren 3an, esaterako, Txuri Urdinen izan ginen, eta esan beharra dago ipurdiko zein erorketek ez zigutela ondo pasatzeko gogoa zapuztu.

Otsailean, urteroko legez, inauterien atarian mozorro-tailerra egingo dugu Berdura plazan. Datozen hilabeteetarako ere ekintzen zerrenda badoa hazten, beraz, adi egon!

Udaleku ireki eta Txiki Txokoaren prestakuntzari ere laster ekingo diogu. Informazio bilera, egitarau zabala, irteerak eta hainbat sorpresa aurreikusten ditugu aurtengorako. 2017ko uda ahaztezina izan zen guretzat, eta ea 2018koa are hobea izatea lortzen dugun.

Zuen proposamenak helarazteko gonbidapena luzatzen dizuegu, ideia berriak beti izaten baitira ongi-etorriak. Horretarako bide ezberdinak dituzue, hala nola, Facebook nahiz posta elektronikora idaztea, Urritzako telefono mugikorrera mezua bidali edo deitzea, edo nahiago baduzue, kalean taldeko edozein kideri esatea.

Urritzako kideek urtarrila hasieran Txuri Urdinera egindako irteera.

Katxopa Gaztelekuan ere lan eta lan gabiltza eta berri bat dugu zuekin elkarbanatzeko: otsailean aurpegi berriak ikusiko dituzue gaztelekuan. Izan ere, udaleku irekietan begirale izandako hainbat getariar gaztelekuan ere ariko dira. Irrikitan gaude ideia berriekin Katxopa alaitzeko.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Getariako gazte zein haurrei, zuen parte-hartzeak mantendu baitu Urritzaren sugarra. Eta nola ez, eskerrik asko zuei ere, gurasook. Abentura berrietarako prest?

Laster izango dugu elkarren berri! Ondo segi.

Harremanetarako datuak:

urritza.ae@gmail.com
gaztelekua.uae@gmail.com
688 71 25 10

UXOA IRIGOIEN

"Find a job you like and you add five days to every week"

"Gustuko duzun lana topatu eta asteari bost egun gehituko dizkiozu"

"Zer izan nahi duzu handitan?" Zenbat aldiz entzun ote genuen galdera hori txikiak ginenean... Aldiro erantzun desberdin bat eman ohi genion galdera horri! Garaiko moden arabera alda zitekeen edota lagun minen interesen arabera. Beranduxeago serioago pentsatzeko garaia iritsiko zen, ikasketak alde batera edo bestera bideratzeko. Egun, krisia dela medio, asko eta asko dira euren ikasketa zein ametsekin bat ez datozen lanbidetan dihardutenak. Garai hobeagoak etorriko diren esperantzarekin, has gaitezen!

Vocabulary

English	Pronunciation	Euskara
Teacher	Titxer	Irakaslea
Nurse	Nurs	Erizaina
Doctor	Doktor	Medikua
Bus driver	Bas draiver	Autobus gidaria
Plumber	Plamer	Iturgina
Farmer	Farmar	Baserritarra
Electrician	Elektrixian	Elektrizista
Engineer	Enyinia	Ingeniaria
Architect	Arkitekt	Arkitektoa
Hairdresser	Jerdrese	Ile apaintzailea
Office worker	Ofiz worker	Bulegoko langilea
Shop assistant	Xop asistant	Dendaria
Nanny	Nani	Ume zaintzailea
Builder	Bilder	Igeltseroa
Cook	Kuuk	Sukaldaria
Journalist	Yornalist	Kazetaria
Postman	Posman	Postaria
Writer	Raiter	Idazlea
Psychologist	Saikoloyist	Psikologoa

Esamoldeak

English	Pronunciation	Euskara
What do you do for a living? I work as...	Uot du yu du fo a livin? Ai work as...	Zer lan egiten duzu? ..... gisa lan egiten dut.
My friend is looking for a job	Mai frend is lukin for a yob	Nire laguna lan bila dabil.
I'm self- employed.	Aim self emploid	Autonomoa naiz.
She/ He is on a course at the moment.	Xi/ Ji is on a kurs at de moment.	Ikastaro bat egiten ari da momentu honetan.
You are looking forward to retirement.	Yu ar lukin fouard tu retairment.	Erretiroa — jubilazioa — hartzeko desiatzen zaude.

Bidaltzailea
ARTZAPEKO LANTALDEA

GUARTZOLA

Noiz edo noiz, kanpoan garela, zein getariarrek ez du burua jiratu ***guartzola*** hitza entzun orduko, pentsatuz han inguruan beste getariarren bat badela? Izan ere, ondo geurea dugun hitza da *guartzola*.
Guartzol hitza ez da ageri hiztegietan. *Guardasol*, osorik idatzita, bai. Sinonimorik ezagun eta erabilienak *aterki* eta *euritako* ditu.
Bistakoa du jatorria *guartzol* hitzak: erdaraz jada erabiltzen ez den *guardasol* hitzetik dator. Euskal fonetikan nahiko arruntak diren kontrakzioak eginda sortua da: *guar(da)sol > guartzol*.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

Idazlea
AMAIA IRAZABAL

ETORTZEN IKUSI NUEN

Etortzen ikusi nuen olatua eta

"hotzegia egongo da" pentsatuta

atzera egin zuten, arin,

lehorrik mantentzea lortu nituen oinek.

Etortzen ikusi nituen zure ezpainak eta

txoke hura katastrofiko xamarra irudituta

atzera egin zuten, arin,

lehorrik mantentzea lortu nituen ezpainek.

Etortzen ikusteak bustitzeko arriskutik salbatzen zaitu.

Eskerrak, disekatzeko arriskutik salbatzeko ere baditudan:

etortzen ikusi ez dudan olatuaren zaplada hezea, eta

joatean ahaztuta utzi duzun ezpainetako hidratantea.

SAIOA MARTINEZ DE LAHIDALGA

Deshumanizazioa

"Honakoa da gaurko kartzelako gaia: dena ondo zihoan argia piztu den arte". Irungo Artaleku kiroldegia pentsakor geratu zen gai jartzailea entzun ostean. Berehala gogoratu nintzen aurreko astekoaz.

Praktika klinikoek Medikuntzako ikasleoi eduki teorikoen putzu sakonetik atera eta idealizatutako eszenen errealitate gordina ezagutzeko aukera eskaintzen digute. Ginekologia eta obstetrizia arloko praktikak egiteko banuen halako gogo berezia, zirrara sorrarazten zidan zerbait. Erditzea zuzenean ikusteko parada, haurra nola irten eta amatxoren besoetan negar nola egiten duen zuzenean ikusteko aukera izango nuelakoan nengoen. Inuxentea ni.

Garunak badu halako gaitasun berezi bat, momentuen erregistro, istanten izozte bat gauzatu eta fotograma buruan biltegiratzeko. Astearte hartan bizitakoa ez dut nehoiz ahaztuko. Ospitaleko erditze gelan sartu nintzen. Erditze gelak ilunpean egon ohi dira, iluntasunak erditzearen indukzioan laguntzeaz gain, emakumearentzat zein ingurukoentzat giro lasaia sortzen laguntzen baitu. Ni gelan sartzerako, dilatazioa ia osoa zen, eta *espultsio fasea* minutu gutxi barru hastea aurreikusten zen. Orduak igaro ziren, ordea. Ginekologoek elkarri begiratu eta buruarekin baietz egin zuten. Argiak piztu ziren. Larrialdiko zesarea egin behar zioten. Korrika joan ginen ebakuntza-geletara.

Testigantzaren bisturia izan zen nirea, sabelean ebakia egiteko erabili ez zena, emakume hari ez bezala, niri erraietako mina eragin zidana. Albo batean jarrita ikusi nuen nola egin zioten ebakia, nola hautsi zioten poltsa, nola atera zuten txikia. Azkarra izan zen, ustez.

Haurra ebakuntza-gelatik atera zuten. Josterakoan, dena ondo ez zihoala ohartu ziren, umetokia hautsi zen, eta hori gutxi balitz, maskuria ere bai. Telefonoz deitu eta beste lau ginekologo sartu ziren gelan, baita urologoa eta beste erizain bat ere. Jendea urduri zegoen, eta beraien artean hizketan ari ziren. Emakumearen burua makina askoren atzean kokatzen zen, bere gorputza liburua bailitzan mahai kirurgikoaren gainean zabalik zegoen bitartean.

Bihotzak makinen atzera joan eta emakumeari begietara begiratzeko eskatzen zidan, buruak ahalik eta gutxien mugitu eta isilik jarraitzea agintzen zidan bitartean. Ezin izan nion eutsi. Paretaren ingurutik, emakumearen buru aldera iritsi nintzen. Negarrez ikusi nuen emakumea. Inork ez zion azaldu zer gertatzen ari zen, inork ez zion esan haurra nora eraman zuten, zer moduz zegoen. Erizainak zabaldu zuen atea orduan. Haurra txanotxoa buruan zuela eskuetan zekarkien, eta amaren buruaren kontra jarri zuen negarrez zegoen haurra. Bi malko isuriek bat egin zuten.

Sarritan sentitu izan dut negargura praktiketan egon naizenean, pertsonak —eta ez jendea— hiltzen ikusi baititut, eta haien senideei begietara begiratu behar izan baitiet. Hala ere, haurra eta amaren aurpegiak bata bestearen kontra ikusitakoan eztarrian egindako korapiloak ito egiten ninduen. Ebakuntza-gelako aldageletara itzuli nintzen ordubeteren ostean, eta bakarrik nengoenez, barne lokarri gaiztoa askatzeko zer katarsi hobea negar egitea baino.

Anduk horrela dio *Zu* liburuan: "*Bi mediku mota daude: gaixotasuna dutenak langai, halakoentzat badirudi gaixorik gabeko zera zientifikoren bat dela gaitza; eta pertsonekin aritzen diren medikuak, gaixotu izanak medikuarengana eraman dituen pertsonekin. Zeresan handikoa da profesioa bizitzeko bi moduen aldea. Hainbat medikuk sekulako abilidadea du gaixotasunak artatzeko, gaixoa-pertsona bat ikusi gabe. Ofizioaren*

deshumanizazioa deitzen zaio". Gaixotasuna baino lehenago pertsona artatu behar da, eta begirunea zein errespetua funtsezko tresnak dira horretarako. Medikuntzatik bizi behar dugu, medikuntza biziz. Emozioen heziketarik gabeko jardun zientifikoak ez du zentzurik.

Deshumanizazio prozesu horren baitan biltzen dut, baita ere, gure irakasle batek —gizonezkoa— duela hilabete batzuk klasean aipaturikoa —gaztelaniaz—: giltzurrun litiasiak gerri aldeko min jasanezina eragiten du, erditzeko minarekin alderagarria dena. Gizonezko batek senti dezakeen erditzearen minaren antzeko zerbait ei da. Emakumeok, izango ote dugu, gutxienez, hain intimoa den mina eta fisikoki geuk bakarrik sentitzen duguna, inongo konparaketa absurdorik egin gabe jasateko eskubidea, ala ez?

ZAINTZA EGUNAK

Otsailean ez du zaintzarik.

FULDAIN FARMAZIA

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

ANDRES ALBERDI

Iturregi eta Urkidi

Askizu auzokoak ditugu hil honetako bi etxe ezagun hauek.

ITURREGI. Etimologiari begiratuta, gardenak dira izena osatzen duten bi osagaiak: *iturri* (> *itur-*) eta *-egi*. Esanahia: *mendi-mazelako iturria*.

Hitz-elkarketan, ohikoa da *iturri* hitza ***itur-*** forman agertzea. Horren lekuko ditugu izen ezagun hauek ere: *Iturbe* (iturriaren beheko aldea), *Iturbide* (iturrirako bidea), *Iturralde* (iturri aldea), *Ituarte* (< Iturrarte), *Iturburu*, *Iturgaitz*, *Iturmendi*, *Iturzaeta*... Baina iturri forma osoa ere sarri ageri da abizen eta leku-izenetan: *Iturri*, *Iturria*, *Iturriaga*, *Iturrieta*, *Iturriza*, *Iturrino*, *Iturriotz*...

-egi atzizkiak mendi-hegal, mendi-mazela esan nahi du (es: *ladera*). Bigarren osagai modura ageri da batzuetan, hemen bezala. Osagai bakar modura ere ageri da beste zenbaitetan: *Egia*, *Hegi*... Sarriago ageri da lehen osagai modura: *Egibar* (*egi + ibar*), *Egiagarai*, *Egi(a)zabal*, *Egiguren*, *Eguren* (*Egi + guren*), *Egino*, *Egaña* (*Egi + gaña*)...

Iturregi.

URKIDI. Etimologia gardeneko izena da hau ere: *urki + -di*; **urki** zuhaitza (es: *abedul*) eta ugaritasuna adierazten duen ***-di*** atzizkia. Esanahia: *urki asko dagoen toki edo parajea*.

Abizen eta toki-izen askoren osagaia da *urkia*: *Urkia*, *Urkiaga*, *Urkiola*, *Urkijo*, *Urkixo*, *Urkizu*, *Urkiza*...

Ez dago esan beharrik *-di* (=*-ti*, *-doi*, *-dui*) atzizkiak presentzia handia duela euskal izenetan: *Arantzadi*, *Elordi*, *Berridi*, *Guridi*... *Amezti*, *Aristi*, *Errazti*... *Sagardoi* (*Sagardui*), *Elordui*, *Otadui*, *Bustindui*...

-di atzizkiaren esanahi berekoak dira euskal onomastikan *-aga*, *-eta*, *-(t)za*, *-(t)zu* atzizkiak ere. Esanahi bera dute, hartara, *Urkidi*, *Urkiaga*, *Urkieta*, *Urki(t)za*, *Urki(t)zu* izenek. Kasu berdina da, esaterako, hauena ere: *Gorostidi*, *Gorostiaga*, *Gorostietan*, *Gorosti(t)za*, *Gorosti(t)zu*; eta *Elordi*, *Elorriaga*, *Elorrieta*, *Elortza* eta gisakoena.

Urkidi.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

"Hondakinen sistema berriak hiru urte barru hondakinen %75 gaika jasotzea ahalbidetuko du"

Otsailaren 1ean jarriko da abian hondakinak gaika biltzeko sistema berria. Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten bost herriek bat egingo dute zabor bilketa sistema berriarekin. Orotara, hiru bilketa zerbitzu izango ditu: herritarrak, industriaguneak, eta komertzioak eta ostalariak. Familia bakoitzak eta sortzaile txikiek txartel bidez funtzionatuko dute errefusaren eta organikoaren edukiontzien kasuan; gainerakoan berdin jarraituko dute.

Herritarrentzat, udalerrientzat eta ingurumenarentzat ahalik eta sistema egokiena adostu eta martxan jartzeko pauso garrantzitsua emanaz, Urola Kostako Udal Elkartea osatzen duten alderdi politiko guztiek —EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Irabazi eta Orain—, aho batez onartu zuten zabor bilketa mankomunatzeko akordioa. Urtebete geroago, otsailaren 1ean hain zuzen, hondakinak gaika sailkatzeko sistema berriari martxan jartzeko unea iritsi zaio.

Hori horrela, Urola Kostako bost udalerritan sistema bateratua ezarriko da, baliabideak optimizatuz, eraginkortasuna areagotzeko. Lan sistema batuta modu efizienteagoan egingo da hondakinen kudeaketa. Kale hezitzaileak bisitak egin dituzte baldintzetara ondoen egokitzen den sistema antolatzeko asmotan. Sistema berriak hiru bilketa zerbitzu nagusi izango ditu: herritarrak, industriaguneak, eta komertzioak eta ostalariak.

Herritarrek bost edukiontzi bidezko bilketarekin jarraituko dute, errefusaren eta organikoaren edukiontziak txartel bidez irekiko direlarik. Txartelak norberari dagokion bizi eremuko edukiontziak irekiko ditu bakarrik eta, egunero, 24 orduz, erabili ahal izango da.

Bestetik, komertzioak eta ostalariak bi multzotan banatuko dira: sortzaile txikietan eta ertain-handietan. Sortzaile txikiek herritarren bilketa sistema bera izango dute, txartel bidez irekiko dituzte errefusaren eta organikoaren edukiontziak; beste hiru edukiontzien kasuan orain arte bezala funtzionatuko dute. Sortzaile ertain-handiei, aldiz, gaikako bilketa zerbitzua eskainiko zaie puntuz puntu honako frakzioak jasotzeko: organikoa, papera-kartoia eta errefusa.

Azkenik, industrialdeetan puntuz puntu bilduko dira astean behin ondorengo frakzioak: organikoa, errefusa, ontzi arinak, egurra, papera-kartoia, plastiko filma eta poliespana.

Otsailaren 15era arte errefusaren eta hondakin organikoen edukiontziak zabalik egongo dira —txartelik gabe irekitzeko—, baina otsailaren 15etik aurrera txartela beharko da.

Helburuak eta abantailak

Finean, zerbitzu berriaren helburua da erraztasunak eman eta birziklatze tasa handitzea: gaur egungo %40ko tasatik %60ra igaroko gara 2018an, %70era 2019an eta %75era 2020an.

Horrek abantaila nabariak ditu, izan ere, errefusa gutxitzearekin tratamendu kostuak murriztuko dira, herritarrek edukiontziak 24 orduz eskura izaten jarraituko dute, merkatariek, ostalariek eta enpresek zerbitzu hobea jasoko dute eta, landa eremuan, birziklatzeko aukerak biderkatuko dira.

Kale hezitzaileak

Hondakinak gaika biltzeko sistema berriaren inguruan informazioa jaso eta aztertu dute kale hezitzaileek. Eskualdeko enpresa, komertzio eta ostalariei sistema berriaren nondik norakoak azaldu eta hondakinen sorkuntza datuak jaso dituzte. Horiek esku artean, eskualdearentzat egokiena den sistema antolatu dute.

Herritar ororen bitartekari nagusiak dira, bidelagun onenak. Urtarrilaren 22tik martxoaren 2ra herrietan finkatuko diren arreta eta informazio zerbitzuetan izango dira argibideak emateko prest. Bertan, sortzen diren galderak erantzun eta zalantzak argituko dituzte.

Horrez gain, sistemaren ezarpenari zuzeneko jarraipena egingo diote. "Kalean edukiontzien inguruan ibiliko gara herritarrei laguntzen. Enpresei zein komertzio nahiz ostalariei sistemara egokitzen lagunduko diegu. Urola Kostako Udal Elkarteko hezitzaile eta langileok laguntzeko egongo gara eta sor daitekeen edozein arazo konpontzen saiatuko gara uneoro", azaldu dute hezitzaileek.

"Aldaketa ez da handia eta denon esfortzu txiki batekin gure helburua lortuko dugu, 2020an sailkatze tasa %75ean kokatzea", gehitu dute. Xedeak beteta, eskualdean birziklatzea ohitura bilakatuko da eta hori da asmoa.

Urola Kostako Udal Elkartea
Hondakinak biltzeko zerbitzua
Tel. 943890808
hondakinak@urolakosta.eus
http://www.urolakosta.eus/eu/web/ingurumena-urolakosta/
"InguruApp" aplikazioa

Mota eta luzera askotariko "skate" oholak, oreka taulak, haurren jolaserako kurbaduradun taulak, etab. egiten dituzte.

Testua KEPA IRIBAR
Argazkiak KEPA IRIBAR
JABI IRAIZOZ

Irristaketa kiroletako taulak

ABIAN DA AMETSA

Zer da Abian? Uretako zein lehorreko irristaketa kiroletako taula ezberdinak eta orekarekin loturiko tresnak egiten dituen proiektua. Baina definizio sinpleegia litzateke hau. Abian amets bat da, eta ametsa abian da.

Jose Inazio Andreanori beti gustatu izan zaizkio eskulanak. Era guztietakoak egin ditu txikitatik. Orain zortzi bat urte surf ohol bat egitea bururatu zitzaion, baina berak ere ez zekien zer bide zabaldu behar zizkion erabaki hark: "Gaur egun zerbait egin nahi duenak San Google dauka. Bilatuz gero, dena dago. Hantxe hasi nintzen begira, eta surfeko taula egin nuen, itxuraz *kurioxua*, baina teknikoki...". Iñigo Herrero herritarrari eman zion, eta uretan ez zuen emaitza onik eskaini, "ez zegoen tramankulu hura uretan dominatuko zuenik: gilak ez zeuzkan egoki jarrita, bolumenak ere ez...", gogoratzen du.

Surf ohol hobe bat egiteko informazio bila zebilela, irudi bitxia ikusi zuen: "Tipo bat uretan, olatuetan, eskuan sandalia moduko batekin. 'Zer da hau?', galdetu nion neure buruari". *Handplane* bat ikusi zuen lehen aldia izan zen hura. Olatuak hartzeko eskuan erabiltzen den taula txiki bat da: "Niretzat berria zen mundu horretan sakontzen ari nintzela, *Paulownia* izeneko egurra ezagutu nuen, eta nire ikuspegia aldatu zuen. Egur benetan berezia da uretarako: ikaragarri arina da, uretan ez da usteltzen, eta surfeko egurrezko oholak egiteko ezinbestekoa da; beste egur mota batzuk zurrunak diren moduan, *paulownia*k olatuetan beharrezkoa den okertasun edo *rocker*-a hartzen du".

Orain dela sei bat urte izan zen hori. Mota guztietako *handplane*ak egin zituen Andreanok, eta gustatu egin zitzaion, "erabat kateatu ninduen. Lantzeko erraza eta azkarra da, eta edertasuna segituan ikusten da. Lan polita. Gero marrazkiak egiten hasi nintzaien, pirografiatuz, eta abar".

Orain dela pare bat urte, bere *handplane* sorta hartuta Salinasko (Asturias, Espainia) *longboard* jaialdi entzutetsura joan zen. Bertan lagun batekin zegoela, hark esan zion *longboard* bat egin behar ziola, *longboard skate* bat, metro eta erdikoa, Estatu Batuetan behin ikusi zuen baten modukoa. "Nik ez nuen sekula horrelako ezer egin, ez neukan arrastorik. Eskura neuzkan egurrekin egin nion ohol bat, hainbat proba eta hanka sartzeren ondoren. Gero, gainera, beste mundu bat zabaldu zitzaidan: ardatzak eta gurpilak, puf, hor nahi adina dago aukeratzeko", dio Andreanok. Lagunari eman zion aurreneko *longboard skate* hori, eta asko gustatu zitzaion. Hor bukatu zitekeen *skate*aren istorioa, baina ez, harra piztu zitzaion Andreanori, urte batzuk lehenago surf oholarekin gertatu moduan edo are indartsuago: harrapatu egin zuen mundu hark.

Horrela sortu da Abian. Etxeko garajea utzi eta Zarautzen lokal bat hartu dute, eta era antolatuago batean, mota eta luzera askotariko *skate* oholak, oreka taulak, haurren jolaserako kurbaduradun taulak, eta abar egiten hasi da. Eta ez da bakarrik ari, bere bikote Arri Altuna ere abentura honen partaide baita: "Ni Aretxabaletako baserri batekoa naiz, eta nire ogibidearekin zerikusirik ez izan arren, beti maitatu izan dut egurra, baina eskulan askorik ez dut egin. Jose Inaziok zirikatu nau eta mundu honetara hurbildu nau; gustatu egin zait". Altunaren arloa Abianen barruan sorkuntzari loturikoa da, *skate* oholen kanpoko itxurari: egur ezberdinak uztartuz, koloreak aukeratuz, etab. "Gehien gustatzen zaidana da sormena lantzen dela. Hasi aurretik sekula ez daukat

Altuna *skate* baten goialdea diseinatzen.

Andreano *skate* bat egiten.

ideia argi bat egin behar dudanaren inguruan, baina ekinez atera egiten da. Musika jarri, lasai lan egin, eta orduak joaten dira". Andreanok dioenez, "*skate*ak ondo ibiltzea neure ardura da, baina politak baldin badira, Arriren meritua da hori".

Bakarrak dira Abian *skate*ak: banan-banan eskuz eginak, egurrezkoak erabat, material toxikorik gabekoak, artisau eran eta modu jasangarrian. Eta maitasun handiz sortutakoak.

Skate oholaren goiko aldearekin hasten da prozesua, guk ikusten dugun eta gainean jarriko garen zatiarekin. Horren itxura egur ezberdinez eta marrazki txikiz osatua dago. Honek 20 bat minutu eskatzen ditu, nahiz eta badagoen irudi bereziren bat. Altunaren esanetan, "bi ordu pasa nituen hau egiten". Behin hau amaituta, itsasgarria eman behar zaio; hamar bat minutuko lana da. *Skate* ohola osatuko duten egur kapa ezberdinak jartzen zaizkio ondoren, modelo eta tamainaren arabera gehiago edo gutxiago. Gero trokelean jartzen da, 4-5 ordu egon behar da bertan. Lantegiko hainbat tresna eta aparailu Jose Inazio berak propio sortu ditu *skate* oholak egiteko. Trokeletik aterata erabat itsatsi dadin 24 orduz lehortzen utzi behar zaio. Behin hori eginda, nahi den forma eman, fresagailu bidez alde guztiak leundu eta txukundu, eta amaitzeko, ez irristatzeko hondar berezi bat jartzen zaio gainean itsasgarriarekin. Emaitza: egurrezko *skate* dotorea, ondo ibiltzeaz gain itxura politekoa.

Surf edo *skate* ohol mundu honetan dabilena lehendik irristaketa kirol horiekin harremanen bat izandakoa da normalean, ia beti surflaria edo *skater*-a. Ez duzue, ordea, Andreano askotan ikusi Gaztetapeko petrilean olatuei begira edo *skate* batekin batera eta bestera. "Niri taulak egitea gustatzen zait, ikertzea, materialak ikustea, ez hainbeste erabiltzea. Etxea teilatutik eraikitzen hasi naiz; egin ondoren probatu ditut nik *handplane*ak, *skate*ak, edo taulak, ez nator mundu horretatik, baina bidean asko lagundu nauen jendea aurkitu dut. Gehiago esango dizut: surf edo *skate* ohol batean tente dabilenak horregatik ez dauka nik baino gehiago zertan jakin beharrik taula horren sorkuntzari buruz, horretarako gustatu eta ikertu egin behar da. Nik asko ikasi dut".

Etorkizuna

Martxan jarri den Abian zer izatea nahi luke? Nora iristea? "Hau ez da nire ogibidea, zaletasuna da. Denborarekin, Abian izena ondo egindakoarekin lotzea nahi nuke, jendeak pentsatzea 'Banaka eta mimoz egiten dituzte, eta nabaritu egiten da'. Noski, egindako inbertsioa berreskuratzea, eta batek daki, nire lana gustoko dudan arren, proiektu honek bizitzeko lain emango balu, ez nioke muzin egingo".

Paulownia, pinua, urkia, gaztainondoa... egurrez inguratuta eta hura laztanduz eta hari forma emanez orduak pasatzen dituzte Andreanok eta Altunak. Egurra ukitzea zori onarekin edo zortearekin lotu ohi dugu askotan. Ea egia den haien kasuan.

Andreano eta Altunak egindako *longboard*ea.

Abianen tauletako bat.

"Zaletasuna txikitatik datorkit, amak beti esaten zidan Gaztetapen paipolarekin sartzen nintzenean egunen batean Zumaian amaituko nuela".

Testua JON ANDER DE LA HOZ
Argazkiak IOSU IRIBAR "TXOKITO"

Iosu Iribar

OLATUAK DAKAR BIZIPOZA

Olatu erraldoien Euskal Herriko txapelketa jokatu berri dute Debako (Gipuzkoa) Sorginetxen, lehendabiziko aldiz. Bertan izan da Iosu Iribar getariarra. Euskal zirkuituko surflariekin aritu zen baina baziren mundu mailan lehiatzen direnak ere, Aritz Aranburu zarauztarra, esaterako.

Ehundaka getariarrek bezperako San Anton Eguneko ajea zutela —izango zen erretiratzeko zegoenik ere—, urtarrilaren 18an jokatu zen lehendabizikoz Euskal Herriko olatu erraldoien surf txapelketa. Debako (Gipuzkoa) Sorginetxe inguruan Open mailako hemezortzi surflari bildu ziren Big Wave Erronkan parte hartzeko. Asko, euskal zirkuituan dabiltzanak, baina baita mundu mailan lehiatzen direnak ere, Aritz Aranburu kasu.

Goizeko zortziak jo orduko, *check in*ak eman zion hasiera jardunaldiari. Tartean zen azken aldian olatu handiei gustua hartu dien Iosu Iribar ere: "Zaletasuna txikitatik datorkit, amak beti esaten zidan Gaztetapen paipolarekin sartzen nintzenean egunen batean Zumaian amaituko nuela". Hala, beti handiagoak hartzeko joera izan du, eta lagun arteko joeratzat du. Hala ere, azpimarratu nahi du "Getarian olatu handietan ibili den lehenengoa Ganix Arakistain izan dela. Behin, Aizpurupen, jendea motorrarekin sartzen ari zela bera bakarrik sartu zen paipolarekin, haitzetatik. Hartu zuen olatuak zeresana eman zuen bere garaian".

Sei surflarik osatutako hiru mangatan lehiatu ziren, goizeko 8:30etik aurrera. Lehen aldia zenez, antolatzaileek surflari bakoitzaren ibilbidea hartu zuten kontuan txandak osatzeko orduan. Hala, itsasoaren egoerak baldintzatu zuen lehiaketa hein batean, halakoetan gertatzen den modura. Izan ere, olatuen tamainak behera egin zuen egunak aurrera egin ahala, bertaratutako zale zenbaitek azaldu dutenez.

Debako Udalak eta bertako Zurrunbilo Surf Elkarteak eman zuten lehiaketa antolatzeko pausoa: "Bizkaian jokatzen da mundu mailako txapelketa, eta Debak olatu polita zuenez olatu handietarako, aprobetxatu nahi izan dute, oihartzuna emateko".

Kirol emaitzei dagokienez, txapelketan zarauztarrak ibili dira finen, sailkapenak erakusten duen legez: Indar Unanuek irabazi du Sorginetxe Big Wave lehiaketa, eta Aritz Aranburu eta Ibon Amatriain izan dira bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. Haiekin batera, Kosme Fernandez eta Ander Mendigurenek osatu dute lehen bostekoa, eta finalean izan da haiekin batera Ibonen seme Iker Amatriain ere. Izan zen bestelako sariturik Deban; Yako surf dendak bi sari eman baitzituen. Bata, olaturik handienari —Indar Unanuek jaso zuen—, eta *wipe out* edo erorketa ikusgarrienari bestea. Kasu horretan, Ander Mendiguren izan zen saritua.

Txapelketan parte hartzeko arrazoien artean du Iribarrek bere elitismo falta: "Euskal Herri mailako txapelketa izan da, eta parte hartzeko aukera ikusi nuenez, animatu egin nintzen". Zortez, barruan izan zen. Olatu handietako txapelketetan ikusgarritasuna puntuatzen dute, baina jaitsiera zaila izatea ere hartzen dute kontuan: "Olatu handietan, hogei puntutatik beharrean 30etik izaten da, eta zure puntuazio altuena bitan biderkatzen da. Hala, lehen olatua hogei punturen arabera izaten da, eta hamarretik bigarrena".

Modalitate erakargarria

Olatu handien berezitasuna bizitzen den tentsioa

eta adrenalina dira, Iribarren arabera. Zehaztu duenez, Gaztetapen berdin du olatu bat itxi ala ez, haitzetatik gertu egon ala ez. Olatu handietan ezberdina da uretako jarrera eta pentsaera, mentalki askoz gehiago prestatzen baitute: "Adibidez, jaitsiera batean harrapatzen den adrenalina igoera... Deban 43 kilometro orduko abiadura harrapatu nuen". Badaki arriskutsua dela, eta, horregatik, txalekoa janzten dute, eta sokak nahiz kaskoak eramaten dituzte zenbaitek. Iribarren esanetan, prestakuntza eta material aldetik, baita fisikoki ere, bestelako exigentzia maila eskatzen du olatu handietan ibiltzeak.

Euskal Herriko kostaldean, batik bat, Getarian, olatu handietarako sekulako lekuak ditugula uste du Iribarrek: "Ubiri esaterako, leku oso ona da, mendebaleko haizeak babestuta dagoelako. Olatu handietan ikasten joateko primerakoa da". Izustarri eta Aizpuruperi buruz ere antzeko ustea du; surflari getariarraren esanetan, "azken leku honek arrisku gehiago du olatuen indar eta tamainarengatik. Gauzak gaizki joanez gero haitzetan amaitzeko arriskua handia da". Gero, Debako olatua gustatzen zaio, noblea eta ikasteko ona delako. Halaber, ez da Lapurdiko Getariarekin ahazten: "Itsaso handiarekin surfa egiteko ederra da, olatu politarekin".

Gure mugetatik kanpora ere baditu gustuko lekuak. Bestela ezin zuen eran, Nazareko olatua izan du mintzagai: "Egun, modan dago. Bere garaian, Kalifornia eta Hawai ere bai, baina urtero errekorrak hausten dira Nazaren". Hala, oroitarazi du urtarrilaren 18an, eurek Deban jokatu zuten egun berean, horixe gertatu zela: "Ez naute berehalakoan harrapatuko hor!".

Hainbeste urtean Gaztetapeko uretan ibilita, ederki ezagutzen du Iribarrek Getariako surfaren egoera. Aho bizarrik gabe mintzatu da hartaz, ohikoa duen eran. Haren esanetan, gazte batzuek hartu diete olatuei zaletasuna, eta uste du "harrobia pixkanaka berpizten ari dela". Izan ere, dio belaunaldi bat galdu dela Gaztetapeko hondar falta medio. Aldiz, elkartearen egoerari dagokionean, bazkide kopurua urtetik urtera hazten ari da, eta lokala txiki geratzen ari zaie. Herriko txapelketa, aldiz, tristuraz begiratzen du: "Lehen 70 partaidera iritsi izan gara, eta azken urteetan 20-30era jaitsi da. Animatu eta bultzatu beharrean gaude". Azkenik, erakundeen artetik bultzada eskasa dutela azpimarratu du.

Agintarien laguntzarekin ala gabe, nekez kenduko diote Iribarri eta gainontzeko surflari getariarrei olatuen gainean kulunkan aritzeko plazera.

Saiazgetaria HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

Josune Uzin Berasaluze
Fisioterapeuta
EFEO zenbakia: 1.100
eskura
fisioterapia zentroa
697 961 208
Elkano kalea 9, behea

BABEXA
Getariako dendari elkartea

Ganix Arakistain
OSTEOPATIA
943253634

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

SAN ANTONAK

Urtarrilaren 17arekin batera, getariarrek izan zuten kalera atera eta ongi pasatzeko aitzakia. San Antonetako ekitaldiak aurreko igandeko bertso saioarekin hasi eta bezperako haurrentzakoekin segi bazuten ere, asteazkena egokitu zen egun handia. Eguerdi aldera bildu, azokan buelta eman eta Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Getariako Udaleko zein Getariako Txakolina Jatorri Izendepeneko ordezkariek 2017ko uzta aurkeztearekin bat, ireki ziren lehen txakolin botilak. Geroago heldu ziren bertsolari, bazkari, herri kirol, musika eta parrandak.

Argazki gehiago Artzaperen Facebook profilean.

2018ko OTSAILA

2 Ostirala
Mendi taldearen bilera
Ordua: *19:00*
Lekua: *Kontzeju azpia*
Antolatzailea: *mendi taldea*
Urte guztiko irteeren egutegia osatzeko, proposamenak egiteko eta taldeak adosteko batuko dira.

VIII. Floren Memoriala Futbito Txapelketako bilera informatiboa
Ordua: *20:00*
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Antolatzailea: *Gure Txeru Elkartea*
Txapelketako informazioa emateaz gain, izen-emate orriak banatuko dira.

3 Larunbata
Santa Eskea auzoz auzo
Ordua: *08:00*
Lekua: *Plazatik abiatuta*
Antolatzailea: *Getariako Bertso Eskola*

Mozorro tailerra
Ordua: *12:00*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

SLIME
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

4 Igandea
Santa Ageda bezpera
Ordua: *17:00*
Lekua: *kalez kale*
Antolatzailea: *Gure Txeru Elkartea*
Santa Agedako ohiko koplak abestuko dituzte kalez kale.

Txiste eguna
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

5-12 As-As
Inauterietako kartel lehiaketako erakusketa
Lekua: *udaletxe sarrera*
Antolatzailea: *Getariako Udala*
Erakusketa amaitutakoan, saririk jaso ez duten parte-hartzaileek euren lanak eskatu ahal izango dituzte.

9 Ostirala
Inauteri festa
Ordua: *14:30*
Lekua: *Herri Eskola eta kiroldegia*
Antolatzailea: *Iturzaeta Herri Eskola*
Mozorro desfilea, jolasak, txokolatada eta abar izango dira.

Marrazki txapelketa
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

10 Larunbata
Inauterietako erakusleiho erakusketa

Inauteriak
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Plaza*
Antolatzailea: *Getariako Udala eta herriko tabernariak*
Mozorro desfilea egingo da Aros DJarekin. Ondoren sariak banatuko zaizkie koadrila, bakarlari nahiz bikote onenei eta mozorro originalenari zein umore onenari. "2018ko Karnabaleruena" izendatuko dute. Incansables txaranga eta disko-festa ere izango dira.

Gaztelekua mozorrotu
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

Kontzertuak: PAST, Des Astres eta Giranice
Lekua: *Gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

15 Osteguna
Odol-ematea
Ordua: *19:00-21:00*
Lekua: *Osasun Zentroa*
Antolatzailea: *Gure Txeru Elkartea*

16 Ostirala
VIII. Floren Memoriala Futbito Txapelketaren hasiera
Lekua: *frontoia*
Antolatzailea: *Gure Txeru Elkartea*

17 Larunbata
Pertsonaien paperean
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

Kontzertua: Pig&Kiss eta Black Bomber
Lekua: *Gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

18 Igandea
COLPBOL
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

25 Igandea
Zinema emanaldia
Ordua: *arratsaldea*
Lekua: *Katxopa gaztelekua*

28 Asteazkena
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *liburutegia*
Alexandra Aleksievtxen "Gerrak ez du emakume aurpegirik" liburua landuko dute.

Cristobal Balenciaga Museoa

Museoaren itxiera
Erakusketa aldaketa tarteko, Cristobal Balenciaga Museoa itxita egongo da martxoaren 24a arte. Egun horretan "Cristóbal Balenciaga. Moda eta ondarea" erakusketa zabalduko da.

BIDALI ZURE DATUAK:

artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€